

DIRULAGUNTZA DEIALDIA, 2024AN ERROTULUAK ETA TOLDOAK EUSKARAZ INSTALATZEKO

1. XEDEA

Deialdi honen xedea **Muskizko merkataritza -eta ostalaritza- establezimenduei eta elkarteei eta klubei errotuluak eta toldoak euskaraz instalatzeko** dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da.

2. AURREKONTUA

Muskizko Udaleko Euskara Zerbitzuak 3.000 euroko aurrekontua du horretarako.

Eskabideak aztertu ondoren, deialdi honetako aurrekontua baino zenbateko handiagoa beharko balitz, zenbateko horren eta deialdiaren arabera erabilgarri dagoen zenbatekoaren arteko aldea modu proportzionalan kenduko da diruz lagundutakoen artean.

3. ONURADUNAK

Dirulaguntza eskatu ahaliko dute Muskizen kokatutako ostalaritza -zein merkataritza- establezimenduek eta herriko elkarteek eta klubek.

4. DIRUZ LAGUNDUTAKO ELEMENTUAK ETA BAZTERKETAK

Diruz lagunduko diren kontzeptuak: 2024an errotuluak eta/edo toldoak euskaraz edo elebitan instalatzeagatik edo aldatzeagatik sortutako gastuak.

Bazterketak: Beren-beregi baztertzen dira dirulaguntza deialdi honetatik:

- a) Izen eta/edo abizenak soilik agertzen diren errotuluak/toldoak.
- b) Gaizki idatzita dauden edo akats gramatikalak dituzten errotuluak/toldoak. Udalak doan eskainiko dizkie itzulpengintza eta aholkularitza zerbitzuak interesdunei, zehazki, Euskara Zerbitzuaren bitartez.
- c) Muskizen kokatuta ez dauden establezimenduetan instalatutako errotuluak edo toldoak.

5. ESKABIDEEN AURKEZPENA

Eskabideak Muskizko Udal Erregistroan edo Euskara Zerbitzuan aurkeztu beharko dira.

6. EPEA

2024ko urriaren 14tik 31ra.

7. EMAKIDA-IRIZPIDEAK ETA GEHIENEO ZENBATEKOAK

- a)** Euskara hutsean idatzitako errotulu/toldo bat jartzen duenari, gehienez ere, horren % 50 ordainduko zaio. Eman daitekeen gehieneko zenbatekoa 600 eurokoa da.
- b)** Euskaraz eta erdaraz, hau da, bi hizkuntzatan idatzita dagoen errotulu/toldo bat jartzen duenari, gehienez ere, horren % 30 ordainduko zaio. Zehazki, eman daitekeen gehieneko zenbatekoa 400 eurokoa da, betiere elebitasun pizgarriaren irizpidea erabiltzen badu, hau da, euskarazko testuak, bai tamainagatik, tokiagatik edo azpimarratuta egoteagatik, lehentasunezko trataera badu.

8. ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

- a)** Eskabide-inprimakia eta banku-kontuaren zenbakia (20 digitu).
- b)** NANaren edo IFKren fotokopia.
- c)** Jatorrizko faktura eta instalatutako edo aldatutako errotuluaren ordainagiria.
- d)** Errotulua instalatu dela egiaztatzen duen argazkia. Argazki bat aurkeztu beharko da errotulu bakoitzeko.

9. EBAZPENAK JAKINARAZTEA

Eskabideak ebatzi ondoren, eskatzaile guztiek jasoko dute dagokion akordioaren jakinarazpena eta, horren ostean, hala badagokio, dagozkion zenbatekoak ordainduko zaizkie.